

## **2-MERKATUA:**

Ingurumenari garrantzia ematen dioten eta teknologia berriak bilatzen ari diren horientzat dago eginda mugikorra. Produktua eskuratzeko askatasun ekonomikoa behar da 930€ balio baitu. Beraz, gure bezero-segmentua **20-40 bitarteko adina duten eta diru sarrera egonkor bat dutenak** izango dira. Bezeroek puntako mugikor batek dituen funtzio guztiak nahi dituzte eta ingurumena zaindu nahi dute.

### **Adibidez:**

Elektrizitate gutxiago behar dutenez, ondorio honetara iritsi gara:

Mugikor arrunt batek 5,26kWh gastatzen du, eta geuk sortutako mugikorrak berriz 3,5kWh behar ditu. Munduko biztanle guztiek geuk sortutako mugikorra edukiko balute, ingurumen arazoak urriagoak izango lirarteke, beraz produktu hau ahalik eta gehien zabaltzen saiatu behar dugu.

### **EKIN LANARI:**

Gure enpresak gobernuak jarritako ezaugarriak betetzen ditu, Espainiako egungo legedia errespetatuz. Enpresaren ezaugarri nabarmen bat ingurumenaren zainketa da, natura kontuan hartzen dugu. 3T enpresak azpiegitura sendoak ditu. Mugikorretan eguzki plakak ipintzen ditugunez teknologia oso aurreratua dugu, puntako teknologiarekin egiten dugu lana. Telefonoak Txinan fabrikatzen dira eta eguzki plakak Espainian jartzen dira.

Gure helburua mundu mailako merkaturan sartzea da. Gure produktua mundu guztian zehar saldu nahi dugu, eta horretarako garrantzitsua izango da, mundu mailako merkaturak eskaparate handi baten antzekoa baita. Mundu guztiak edukiko du gure produktua eskuragarri, eta gure garraio-sarea baliatuta, egun gutxiren buruan iritsi ahalko da produktua bezeroarengana. Gainera, gure produktua berezia da. Orain artean ez baita horrelako produkturik egon merkaturan, eta mugikor enpresa handiek nahiago izan dute dirua lehenetsi ingurumenaren aurretik. Guk aldiz ez, ingurumena zaindu eta aldi berean kalitate oneko produktua merkaturatuko dugu. Horretarako, teknika eta ekoizpen modu efizienteak erabiliko ditugu.